



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko urtarrilaren 5a

1. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioak jasotzen dituztenei, haien dirusarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak direnean, laguntza osagarria emateari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (2. or.).

D SAILA:

Hitzarmenak:

—Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzaren hitzarmena, prestakuntza irekia, librea eta Internet bidezkoa emateko “Aulas Mentor” proiektuan parte hartzekoa. Osoko Bilkuraren baimena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Adierazpen politikoa, Mendebaldeko Saharako herriaren autodeterminaziorako bake plana berehala aplikatzeko eskaeraren aldekoa. Osoko Bilkurak berretsia (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ustezko “sismikotasun induzitua” aztertzearen Itoizko urtegiaren betetzea eten dadin. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Itoizko urtegia betetzeko prozesua eten dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—“Otano kasua” izenekoari buruzko ikerketa batzorde parlamentario bat sortzea. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioak jasotzen dituztenei, haien dirusarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak direnean, laguntza osagarria emateari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Aralar parlamentu-taldeak ondoko foru lege proposamena aurkeztu zuen: "Foru Lege proposamena, zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioak jasotzen dituztenei, haien dirusarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak direnean, laguntza osagarria emateari buruzkoa."

Nafarroako Parlamentuak, 2004ko abenduaren 23an egindako Osoko Bilkuran, aipatu foru lege proposamena aintzat ez hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 2004ko urriaren 18ko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

D saila:
HITZARMENAK

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzaren hitzarmena, prestakuntza irekia, librea eta Internet bidezkoa emateko “Aulas Mentor” proiektuan parte hartzekoa.

OSOKO BILKURAK EMANDAKO BAIMENA

Nafarroako Parlamentuak, 2004ko abenduaren 23an egindako Osoko Bilkuran, Foru Diputazioari ondoko hitzarmena izenpetzeko eskatutako baimena ematea erabaki zuen: “Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzaren hitzarmena, prestakuntza irekia, librea eta Internet bidezkoa emateko “Aulas

Mentor” proiektuan parte hartzekoa.” Haren testua 2004ko abenduaren 16ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen politikoa, Mendebaldeko Saharako herriaren autodeterminazioarako bake plana berehala aplikatzeko eskaeraren aldekoa.

OSOKO BILKURAK BERRETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2004ko abenduaren 23an eginiko bileran, Eledunen Batzarrak 2004ko abenduaren 13an onetsiriko adierazpen politikoa berrestea onetsi zuen. Hona adierazpenaren testua:

Nafarroako Parlamentuak gogoan hartzen du Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoak (SEAD) eta Fronte Polisarioak nazioarteko legez-kotasuna errespetatzeko duten asmo zintzoa, eta iritzi publikoaren aitzinean nabarmen utzi nahi du Marokok ez duela NBEren kasuko erabakiak onartzeko batere borondaterik; hori dela eta, bere egiten du 30. Konferentziak NBEko idazkari nagusiari eta Segurtasun Kontseiluari eginiko deia, azkar aplikatu ditzaten Nazio Batuen ebazpenak, NBEko Segurtasun Kontseiluaren 1495. Ebazpenean eta horrekin bat datozenetan jasotzen den Mendebaldeko Saharako herriaren autodeterminazioarako bake planari buruzkoak.

Nafarroako Parlamentuak bere egiten du azken aldian gertuen izan diren Europako gobernuen jokabidearen analisia eta kritika, EUCOCoren 30. Konferentziaren Adierazpenean jasoa, eta horrenbestez, "atsekabez jasotzen du eta salatu egiten du Saharari buruzko txostenaren tratamendua dela-eta Frantziako gobernuak izan duen jarrera", eta "gogor deitoratzen du Mendebaldeko Saharako gatazka dela-eta Espainiako gobernuak darabilen politikaren anbiguitasuna, bake planaren aplikazioa argi eta garbi babesteko luzamendutan baitabil".

Nafarroako Parlamentuak, orobat, "nahi eta espero du Espainiako estatuaren jarreraren bilakera positiboaren iragarpena izatea SEADko lehendakari Mohamed Abdelazizen eta Espainiako gobernuko lehendakari José Luis Rodríguez Zapateroren arteko bilera".

Eta "Espainiako gobernuari eskatzen dio ez dezala ez erraztu ez babestu ere inongo ekimen

pribatu edo publikorik, Mendebaldeko Saharako lurraldearen legez kanpoko okupazioa edo hango natur baliabideen harrapaketa legitimatzeko balio izanen duenik.

Halaber, Espainiako gobernuak premiatzen du zeharo bete dezan Saharako herriarekin duen ardura historikoa, eta hartara zintzoki babes dezan Saharako herriaren autodeterminazio eskubide besterenezina, NBEren bake planaren esparruan erreferendum demokratiko baten bidez gauzatzekoa."

Nafarroako Parlamentuak damu du erakunde-ek laguntza material eta humanitario urria onetsi izana errefuxiatu sahararrentzat, dei egiten die NBEko, Europako Batasuneko eta herrialde emaitzako agentzia espezializatuari egoera hori gainditzeko, eta kausa horri gure erkidegoak ematen dion laguntza humanitarioa handitzeko konpromisoa hartzen du.

Nafarroako Parlamentuak, halaber, kezka azaltzen du errefuxiatu sahararren osasun egoerarengatik eta haien hezkuntzaren nahiz informazioaren kalitatearengatik, eta animatzen ditu eta bere babesa adierazten die kultura egiazki sustatzeari ekin diezaioten errefuxiatuen bizitza baldintzak hobetze aldera.

Nafarroako Parlamentuak, azkenik, bere egiten ditu EUCOCoren 30. Konferentziak ateratako ondorioak, Marokok okupatuta dituen Mendebaldeko Saharako lurraldeetan giza eskubideak etengabe bortxatzeari buruzkoak, gogoan hartzen ditu Mendebaldeko Saharako natur baliabideak legez kanpo ustiatzeko ekintzak eta saioak, eta errespetuz agurtu nahi du emakume sahararrek eta gazteek UNMS, UJSARIO eta UGTSARIO erakunde-ekin bitartez egindako borroka eta lana.

Iruñean, 2004ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ustezko “sismikotasun induzitua” aztertzearen Itoizko urtegiaren betetzea eten dadin.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ustezko ‘sismikotasun induzitua’ aztertzearen Itoizko urtegiaren betetzea eten dadin”. Mozio hori 2004ko urriaren 25eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legebiltzarrak, 2004ko abenduaren 23an egin-dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Aralar parlamentu-taldeak aurkeztutako mozioa baztertzea.

Iruñean, 2004ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Itoizko urtegia betetzeko prozesua eten dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Itoizko urtegia betetzeko prozesua eten dezan”. Mozio hori 2004ko urriaren 25eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legebiltzarrak, 2004ko abenduaren 23an egin-dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak aurkeztutako mozioa bazter uztea.

Iruñean, 2004ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

“Otano kasua” izenekoari buruzko ikerketa batzorde parlamentario bat sortzea.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak, 2004ko abenduaren 23an egindako bilkuran, onetsi zuen “Otano kasua” izenekoari buruzko ikerketa batzorde parlamentario bat sortzea

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefona *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

